
IGARTZAKO DANTZARIEN EGUNA

Dantzarien Kofradia eta orain 200 urteko Ezpata-dantza

2007an Aurtzaka dantza taldearen ekimenez, Igartzako Ezpata-dantzarien Kofradia sortu zen Beasaingo Igartzan. Egun 300 kofradez osatutako erakunde honen zereginik behinena, gutxienez orain bi mende Beasainen eta inguruko herrietan oso ohikoak ziren Ezpata-dantzaren segizio eta dantza-sortak berreskuratu eta indarrean jartzea da.

Horretarako, urte ro ospatzen dugu gure egun handia Igartza auzoko jaietako larunbat z.

Beasainen Loiazko San Martín santuaren prozesioari lotutako [ezpata-dantza](#) bat gordetzen da, herrian daukagun altxor handi bat dena bere horretan. Aipagarriak dira bide bat z, pro koloari berari lotuta egiten den banderaren agurra eta hurrengo egunean herriko plazan dantzari berberak dantzatu ohi duten "danzasoka" edo "aurreskua".

Loiazko San Martinen prozesioa XVII. mendearen bigarren erdi aldirian egiten hasi bazen ere, ezpata-dantzari dagokion berririk zaharrena 1808koa da. Garai horretan, gipuzkoar herri askoren antzera, Beasainen ere ezpata luzeko ezpata-dantza taldeak osatzen ziren, 1828ko eta 1830eko Errege-familiaren bisit i esker dokumentuetan jasota dagoen bezala. Azken datu historiko horietan oinarri hartuta sortu zen Igartzako Ezpata-dantza.

Dantzarako erabiltzen diren janzkera, bandera eta ezpatak dokumentu historikoetan jasota daudenak dira, eta dantza bera, herrian bertan eta eskualdean ezagutu izan diren dantza-maisu zaharregandik ikasitako eran eta aldairekin egiten da.

Euskal Herriko ezpata-dantzen ezaugarrietako bat da, hauek osatzen dituzten taldeak jendetsuak izatea, bi eskuko ezpata luzez lotuta bi eta lau ilarako formazioan, eta buruzagi gidari bat aurrean dutela. Beste ezaugarri bat, segizio honi jarraitzen dioten ezpata-txikiko dantzari bakarlariak dira, koreograf zailduagoak erakusten dituztenak.

Zer egiten dute dantzariak egun honetan

12:00 Bandera jaso herriko Plazan

12:05 Ezpata-dantzaren segizioa plazatik Igartzaraino

Ezpata-dantzarien segizioa buruzagi edo kapitain gidariak irekitzen du, lau ilarako ezpata-dantzarien lerroak daramatzala. Atzetik kapitain azkendariak joango dira, Loizazko ezpata-dantzan urte horretan kapitain izan diren dantzari txikiekin batera; ondoren banderazaleak, danbolintero eta musikariak atzetik dituztela. Erraldoiak itxiko du segizioa eta Kofradiako zaldikoak segizioari modu askean jarraituko dio, gidaritzan eta dantzen zuzendaritzan lagunduz.

12:30 Ezpata-dantzaren saioa Igartzan

Dantzarien segizioa Udaletxeko plazatik Igartzako multzo historikoraino bertzen da, eta bertan erakusten dituzte antzinako Jauregiaren eta zubiaren inguruan egiten diren dantza eta agerraldiak. Protokoloan sartzen da era berean, herriko tradizioaren arabera burutzen den banderaren agurra ere, zubian osatutako ezpate n parrila edo larrosa gainean egiten dena.

Dantzari taldeak Igartzako multzoan burutzen duen ibilerak garai batean bertako nagusiek jabetza-aldaketa aldarrikatzeko erabiltzen zuten protokoloa berregiten du: Igartzako buruak hil ondoren, euren ondorengoei zegokien jabetza eskuratzea, eta horretarako gunea osatzen zuten etxe eta eraikin guztiei bisita egin behar izaten zien, haien Jabe berria zela adierazteko. Jauregian, esateko, zerbitzariak kanporatu eta atzein leihotik guztiak itxi egiten zituen. Dantzariak egun, bertako balkoian banderak ezartzearekin irudikatzen dute ekintza hau.

Era berean, dagoeneko XVI. mendean Igartzako buru eta nagusi Maria Igartzako ari izan zen bezalaxe, Kofradiako kideen eta dantzarien artean ez da genero bereizketarik egiten.

Aipatzekoa da, gaur egun kapitain azkendariak aldapara gainean egiten duten ezpata-dantzaren azken ezpata-jokoa, Joseba Juarez buruzagia izan zenaren ohorez egiten dena, kofradiakideentzako daukan esanahi sentituagatik.

14:30 Bazkaria eta ekitaldia Igartza Jauregian

Dantzen ondoren, Kofradiaren bazkaria ospatzen da Jauregian, eta egunaren aktibitatearekin batera, eguneko dominak banatzen dira, baita ohorezko kofradiakideen izendapena ere, baleude.

Dantzarien partaidetza kopuruaren arabera banatzen dira kofradiaren dominak:

- Lehen urtean, zinta gorria jasotzen da.
- Bosgarren urtean, bigarren zinta gorria.
- Hamargarren urtean, zinta urdina.
- Hamabosgarren urtean, bigarren zinta urdina.

Ohorezko kofradia kideek, urrezko zintadun domina jasotzen dute.

17:30 Erromeria Aiko taldearekin

Eguna borobiltzeko, ezinbestekoa da Jauregiko zelaian ospatzen den erromeri-irudia, kofradiakide eta inguratu nahi duen guztekin batera giro alaietan dantzatzuz. Aurtengo Aiko taldea izango dugu lagun. Animatu zaitz!

Orain arteko Ohorezko kofradeak

Joxe Sarriegi Olanan (dantza-maisua, Beasain 1920-2005)

Raimon Gamaiño Contreras (dantza-maisua, Beasain 1955-2012)

Juan Antonio Urbeltz Navarro (ikerlaria, Iruñea 1940)

Juantxo Agirre Mauleon (historialaria, Tolosa 1965)

Jesus Mari Garate (dantza-maisua, Ordizia 1949)
Patxi Laborda Larrea (dantza-maisua, Iruñea 1967)
Joseba Juarez Mendizabal (dantza-maisua, Ordizia 1980-2014)
Faxatxo Sarriegi Olano (dantza-maisua, Beasain 1958)

Talde gonbidatua: Esbart Dansaire de Rubí (Katalunia)

Ohikoa izaten da kanpoko dantza taldeak gonbidatu gisa ere bertan egotea. Aurtengoan, Kataluniatik dator "Esbart Dansaire de Rubí" taldea. 40 dantzari eta musikaririk osatzen duen taldea, 1923an sortua, eta Kataluniako zaharrenetakoa eta entzutetsuenetakoa dena. "Premio Nacional de Danza" izendatua 1985an eta "Creu de Sant Jordi" 1997an, euren kalitatea eta dantza ikusgarri eta alaiak ezagutzeko aukeraparegabea eskainiko diquen honenbestez.

Beasain 2017ko irailak 9

